# *FUNTSEZKO ELKARTEAK*

Gure akademiak funtziona dezan, beharrezkoa izango zaigu hornitzaile batzuen laguntza jasotzea. Gure akademia lehen urratsak emateko gai izateko, lehenik Orixe BHI Tolosako institutuarekin lan egingo dugu. Behin egonkortasun puntu batera iritsita, gainerako ikastetxeekin martxan jarriko gara. Luzetara begiratuz, inguruko euskal eskoletak izango dira hornitzaileak.

Etorkizunera begiratuz hornitzaile

ek hainbat laguntza esakiniko dizkigute:

- ☐ Eskola bakoitzeko liburuak. Jakina da eskola guztietan ez direla liburu berdinak erabiltzen, hortaz, funtsezkoa izango da eskola bakoitzak kurtsoko arlo guztietan lantzen dituzten liburuen eredu bat guri eskuragarri jartzea.





- ☐ Klaseak emateko beharrezkoa dugu ikasgela bat eta beraz, horretarako, ikastetxeek gela bat eskaintzeak asko lagunduko liguke.

- ☐ Ikasleentzako materiala eskuragarri edukiko dugunez gero, Kopibat liburu-denda edukiko dugu horien hornitzaile. Kopibat-ek eskolako materiala: arkatzak, borragomak, boligrafoak, kalkulagailuak… eskainiko dizkigu.

